

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA

31. zk.

2008ko bagila

DANA PREST UDAKO SASOIARI EKITEKO





APELLIDUAK ABIZENDU KANPAINA jarri dabe martxan Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek. Kanpaina horren bidez, oraindino abizenak erdaraz (erdal grafiagaz) idatzita daukeezan herritarrei gogorarazo gura jakee aukerea daukiela abizenak euskeraz ipinteko, erraz-erraza dala, debaldekoa eta Udala ardurtuko dala egin beharreko tramitazioaz.

Benetan gura izan ezkerro apellidua abizendu, oraingoan ez dago, ez, atxakiarik!!!

EUSKALDUNEN LAN-POLTSA

Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek zerrendak zabaldu dabez umeak edota nagusiak jagon, eskola partikularrak emon eta aisialdirako begirale izan gura daben euskaldunek izena emon dagien.

Daborduko izen batzuk egon badagoz baina behar egiteko prest dagoan jenteagaz zerrendak oraindik gehiago luzatu leitezazala-eta, aitatu hiru udalek lan poltsetan izena emoteko epea zabaldu egin dabe urriaren 1era arte.

Bien bitartean, nonork ume/nagusi jagole, partikularrak emoteko irakasle, begirale euskaldunik behar izan ezkerro, deitu dagiala Arrieta, Fruiz edota Gamiz-Fikako udaletxera eta orain arteko informazioa emongo jako.



Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek "Ondorengoetaratzte" izeneko kanpainagaz dabiz egunotan. Kanpaina honen bidez, **ETXEKO TXIKIEN EK EUSKERA TXIKI-TXIKITATIK JASO DAGIEN:**

- 1.- Hainbat pautak emoten jakeez gurasoei.
- 2.- Jaiobarriei adur-zapi (babero) bat eta Ku-Ku liburuxka eta diska oparitzen jakeez eta 1-3 bitartekoei merienda-zorro polit bat "Esaidazu euskeraz" esaldiagaz.

UDAKO JOKOAK

Arrietan, Fruizen, Gamiz-Fikan zein Meñakan dana dago prest gaztetxuen uztailleko jokoetarako. Urterik urte gauzak hobetzen joan gura izan dira lau udalerrietan eta aurtengoan, egia esan, lauretan egongo da barrikuntzaren bat edo beste. Uztailleko jokoen barri zehatzagoa izan gura dauanak udaletxera deitu dagiala, han azalduko deusiez-eta nondik norako guztiak.

Martxan da **ARRIETA, FRUIZ ETA GAMIZ-FIKA HERRIEN ARTEKO PALA ETA FRONTENIS TXAPELKETEAK**. Amaitu da daborduko izena emoteko epea eta zehaztu dira alkarren aurka jokatzeko hasiko diren bikoteak. Partidak ekaina-uztailan jokatuko dira eta final handia: abuztuaren 10ean, Fruizko jaien barruan!!!. Nork irabaziko dauan? Euskereak eta kirolak, baietz biak irabazi!!

URIBE BUTROE ZERBITZU MANKOMUNITATEAREN LOGOTIPOA DISEINATZEKO LEHIAKETEAK

Urte bete da Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Meñakako Udalek Uribe Butroen Zerbitzu Mankomunitatea osatu ebela. Mankomunitatea garrantzia hartzen doa apurka-apurka eta gure udaletatik kanpo irudia zabaltzeko asmoz, mankomunitatearen logotipoa diseinatzeke lehiaketea jarriko da martxan. Lehiaketan parte hartzeko oinarriak udaletxean jarriko dira eskuragarri. Bi sari egongo dira: Lehenengoa 600 eurokoa eta bigarrena 300 euro. Animo eta zorte on!

UDABARRIAK UDEARI LEKUA EGITEN

Maiatzaren 24an Meñakako "Bekoabadene" txokoa Xabier Aburruzaga eta Irkus Ansotegi trikitilariak eta "Taket" bertso eskolako bertsolariak aritu ziran. Ekimen jendetsua izan zan eta gero be tabernatan jarraitu eban triki-bertso festak.

Udabarrien egiten diren ekitaldien barruan sartzen da aitatu ekitaldia eta orain Meñakan San Juanak atontzeari ekin behar deusagu.



MEÑAKA

Ane Albisu donostiarrak apirilaren 26an XXI. menderako Poposamena izenburupean berbaldia emon eban Meñakan 40 lagunen aurrean. Anek 21 urte daroaz "Ikerfolk" elkartean, folklorea eta modaren inguruko ikerketak burutuz.

"Atondu" liburuan oinarrituz, tradiziozko euskal jantziei buruzko ideiak eta tradiziozko euskal jantziak zelan prestatu, beronek daukon garrantziagaz batera azaldu eban. Bertaratutakoekin jamin-mina piztuz, berbaldia sano interesgarria izan zan.



MEÑAKABARRENAKO JAIAK 2008

MAIATZAK-17 (ZAPATUA)

16:00etan: Puzgarriak eta motorrak umeentzat.
18:00etan: Gazte-Kirolak.
Tarteka Trikitixa musikaz alaituko da giroa.
19:00etan: Taloa txorizoagaz, otartekoak, eta piketako "koputxue..."
21:00etan: Erromeria Oihergi taldeagaz.

MAIATZAK-18 (DOMEKA)

12:00etan: Mezea.
Meza ostean "hamakatakoa".
12:30etan: Txalaparta, adarra, eta trikitixa.
13:00etan: Herri Kirolak. Urrezko aizkolarien txapelketa 2008.
Atutxa (Bizkaiko txapelduna) Mugerza II aren kontra.
Iñaki Perurena eta Iñasio Perurenak alkarren kontrako "desafioa" egingo dabe.
18:00etan: Gorriti.
19:30etan: Txokolatadea.

Oharra: Eskulanak eta Meñakako argazkien erakusketa izan ziran, jai giroagaz batera.

Txalaparta eta adarra jo eben ikastaroan ibilitakoek eta gura izan eben guztiek.



GAMIZ-FIKA

ZUHAITZ EGUNA GAMIZ-FIKAN

Martxoaren 2an, goizeko hamaiketan, hainbat gamiz-fikar Fikako Plazan alkatu ginan zuhaitz eguna ospatzeko. Handik martxan hasi eta ordu erdi geroago udaletxeak Fikan daukon lursail eder batera heldu ginan. Goiza han emon genduan, 80 zuhaitz landatu genduzan eta ur-depositua be ikusi genduan.

Handik bueltan Fikako Txokoa gelditu ginan, bertan, goizean emondakoa errekuperatzeko asmoz. Luis Azillona errotariak taloa zelan egiten dan irakatsi euskun, eta guk ikasi, bai, baina batez be JAN egin genuen, gozo, sano gozo egoan eta. Egun horretako menua indabak, entsalada eta laguntzeko taloa. Eta postrea... TALOA TXOKOLATEAGAZ. ITZEL.

Eskerrik asko sukaldariei, Kenediri, Balmari eta, batez be, Luis eta Natiri gelditu barik ibili ziran eta.
Egun ederra pasa genduan!!!!



GAMIZKO FERIA

Maiatzaren 11n Gamizko Feriaren VII. edizinoa egin zan. Egun horretan Gamiz kolore, usain eta zaporez beterik itxartu zan. Euskal Herriko bazter guztietatik etorritako artisauak eta baserritarrak egon ziran bertan, eta jenerorik onena ekarri euskuen dastatzen emoteko eta baita saltzeko be.

Gamizko korukoek frontoian abestu eben, eta abesti ederrek inguruak alaitzen lagundu eben.



KONTUAK ETA LIBURUAK IZAN ZIRAN APRILEKO PROTAGONISTAK

Apirilaren 5ean Maite Franko ipuin kontalariak “Halabazango ipuinak” ekarri euskuzan herrira. Eta egia esan, Fikako KZ gunean batu ziren umeak oso ondo pasatu eben. Kontaktaren ostean meriendatxoa egin zan.

Aurten I. Irakurketa Lehiaketa egin da Gamiz-Fikan. Sari banaketea apirilaren 25ean egin zan Fikako KZgunean. Txapelduna aukeratzea zaila zan, aurkeztutako bostek lan handia egin eben-eta. Holan ba, irakurketa lehiaketaren 1. edizino honetako irabazleak bostak izan dira. Zorionak hemendik Nerea, Nahia, Bittor, Anton eta Aritz txapeldunei!!!!



INOIZKORIK JENTE GEHIEN AURTENGO ATHLETIC ZALEEN EGUNEAN

Hemengoak, hangoak, haragokoak... bazter guztietako zaleak alkatu ziran apirilaren 19an Gamizen.



ARRIETA

ARRIETAKO EUSKALDUNEN JAKITURIA Kontuak, kantzak, bizimodua



Liburua eta CDa argitaratu ditu Arrietako udalak Mendebalde Kultura Alkartegaz batera.

Liburuak 190 orrialde ditu eta 120 argazki. Erretratuetarik batzuk zahar-zaharrak dira –moinoz eta txapelez jantzirik agertzen diranak-, beste batzuk koloredun gaurko egunekoak. Danen artean Arrietako aurpegi bizia erakusten deuskue: Sollube mendi orlegia, Aita Patxi zorionekoa, huraz harantzako Basque Center Boisekoa, baserri eder zabalak.

Liburuko testuak, osterak, Arrietako euskera ederrean datoz, bizkaiera literarioko erara jantzita. Zenbat ikasten dan arrietarren berbetatik: esaldi zuhurrak, esamolde dotoreak, sineskera miresgarriak! Zenbat euren kulturatik: amerikanoen joan-etorriak, -herriko 10

gizonetarik 7 Amerikara joanak-, basurdeak, eskolea, gerratea, Karolina kitanea, kuarta-denporak, hausnar-kotxoak, Parisiko teatroa, Peru eta Mari, azken baten hamaikatxu kontu, kanta eta bizimoduko gorabehera, hau da, ARRIETAKO EUSKALDUNEN JAKITURIA, liburuaren izenburuak dinoan moduan.

Argazkidun liburuarekin batera, CDa be badator; autoan zoazela entzuteko CDa, kantaz, kontuz eta istorioz hornidurik.

Liburuaren nahiz CDaren egileak, Juan Luis Goikoetxea, Begoña Bilbao eta Iñaki Gaminde ditugu. Urte bitan ibili dira saiorik saioko grabaketak egiten zein osteko transkripzioetan zein editatze lan teknikoetan, beti be, Edurne Torrealdai alkatea antolatzaila lan beharrezkoetan aurretik dala.

Liburuaren eta argazkien bitartez, aldi bateko Arrieta berreraiki baino berregin egin da, zientifikotasuna eta pedagogia era orekatuan jagonik, metodologiarako be eredia sortu nahian.

Ikerlan honegaz, behin betiko gordeta gelditzen da, arbasoen euskerea eta kulturea hurrengo guraso-umeei eskaintzeko.

Arrietako andra-gizonak eurak dira liburu honetan sortzaile, eurak dira subjektu, eurak historialari. Liburuan eta CDan haren ondarea jaso da, ondorengoei esku-eskura emoteko. Eskerrak euskaldun guztion izenean, bai eurei, baita diruz lagundu deuskuen Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari be.



*“Arrietako euskaldunen jakituria”
liburuaren egileak eta
Edurne Torrealdai alkatesea liburua
jendaurrean aurkeztu zan egunean.*

ALKARRIZKETA

PATXI ELGEZABAL.

“ERROTATXUTIK” ZIORTZARA...

Bolibarretik gora bada X. gizalditik hona dagoen kolegiata bat. Oiz eta Kalamua mendien magalean aurkitzen da. Udako berorik handiengan be, haize fina eta giro atsegina izan ohi da, leku zoragarri bezain baketsu horretan. Ziortzan aurkitzen gara, bertan Meñakabarrenan jaiotako fraile txiki bat dogu abat-a. Patxi Elgezabal “Errotatxukoa” gaz egon gara eta, galdera batzuk erantzun deuskuz...

1) *Noiz eta non jaio zinen?*

1923ko abuztuaren 17an jaio nintzan Agarre baserrian. Handik Meñakabarrenako Errotaxu baserrira joan ginan bizitzera.

2) *Noiz urten zendun Meñakabarrenatik?*

Abade egin arte egon nintzan Meñakabarrenan. Hogeita bost urte izan arte, ez neban Meñakabarrenatik urten.

3) *Zenbat urtegaz sartu zinen fraile?*

Hamabi urteko mutil makarra nintzala joan nintzan seminariora. Zerk edo nork bultzatuta? Meñakan Antonio Renteria egoan parroko eta berak animatu nendun abade izateko. Meñakabarrenatik Meñakara egunero hiru bider joaten nintzan karraderan, erdera ikasteko Antoniogaz, gero seminarioko ikasketetan arazorik izan ez dagidan. Lehenengo Saturraranen egon nintzan eta gero 1939an Bergarara joan ginan. Hantxe nengoala amaitu zan guda zibila. Bagilaren 29an, San Pedro egunez ordenatu nintzan abade.

Arabako Zuazan abade nengoala burutu neban Teologiako bosgarren urtea. Handik gero Mirandara eta Amurrionara destina ninduen. Sei hilabete beranduago destinoa emon eustian misinoetarako.

4) *Mundu zabalean ibili izan zara.*

Misinoetan. Kontatu apur bat zeure ibilerak.

“Mizino Bizia”ren alde aldarrikatu ostean, Patxi “Seminario de Misiones Extranjeras”en sartu zan.

Ecuador-en dagoen Rios-eko probintzian egon nintzan misinoatan, bertako umeei eskolak emoten. Lehenengo urtean zortzi joan ginan, bigarren urtean beste zortzi eta hirugarren urtean beste zortzi. Hiru urtean hogeita lau izatera heldu ginan, eta handik urte batzuk barru, hirurogeita lau lagun gengozan Rios-eko misinoan.

Nire bizitzako esperientziarik politenetakoa izan zan Rios-en bizitakoa. Beti gura izan dot jendea lagundu eta horretarako aukera paregabea eskeintzen eustan Rios-eko misinoak. Gaxoak zaintzeko ospitala egin gendun, bertan egozan behar-izaneei aurre egiteko. Ecuador-eko presidentearengana joateko, falta zana eskatzera ez gendun



arazorik izaten. Ospitala gobernuko diru-laguntzakaz handitu gendun.

Ni Mocache herrian nengoan eta handik 30 km-ra Quevedo herrian Félix Zulueta egoan. Behin beragana joateko esanaz idatzi eustan. Ni dana itxita joan nintzan gaixorik egoala uste izanda. Hara heldu eta ondo egoala ikusiz batera zera esan neutson: “Baña zelan esan dostezu hona etorteko?... Nik Mocachen dekodan beste beharregaz?”

“Bakardadeak jango eutsulakoan nengoan eta horregatik eskatu deusut honantza etor zaitez!” - esan eustan Felixek.

Beste anaia bat be badekot misinoetan ibilitakoa. Joakin, Puerto Principe-n egon zan, harik eta 79 urtegaz hil zan arte.

Ecuador-en 22 urte egon ostean, zortzi urterik behin, sei hilabetez etorteko baimena emoten eusten. Hara eta hona ibili ostean 1967an Cantabrian aurkituten dan Cóbreces-era joan nintzan. Gero Nafarroako Olivan eta azkenik Bizkaiko partean amaitu neban.

5) *Ze oroitzapen dozu Meñakatik; lagunak, lekuak, jaiak...*

Bai ba! Lekuetatik hasiko naz. Hiru seminarista joaten ginen egunero Mungiara. Mantzorresetik pasetan gineanean Ugarteko Jesus, Felix Elorriaga “Ezker” eta ni, bertako txakurrek urtetan euskuen bidera, ia Mungiaraino atzetik jarraituz.

Meñakabarrenako jaiak be gogoan deukodaz. Han jende asko batuten ginan, familiakoak eta gonbideduekaz etxe



bete jente izaten ginan!

Badekot pasarte polita Meñakako herriagaz: “erromarra joan ginanean, ea non ikasi dogun galdetu euskuen. Eta batak Erroman ikasi dauela esan eban, besteak Madrilen, eta nik Sollubeko Unibertsidadean ikasi nebala esan neutsen. Bizimoduaren barri Meñakak emon deust, horko jakituria ez dot liburuetan topatu.

6) *Idatzi dozu libururik edo...*

Ez. Jaungoikoaren berbea idatzi dot, baina libururik ez. Inoz pentsatu izan dot gazteagoa nintzanean eta... Orain

ostera, daukoda adinagaz liburuaren ideia baztertuta deukot.

7) *Sasoi baten Meñakako eta batez be Meñabarrenako jende asko sartu zan fraide, abade edo monja. Zergatik?*

Meñakan eta batez be Meñakabarrenan etxeke dagoz bokazinoa deukenak; abade, fraile edo monja izateko. Horren arrazoia? Lehen orain baino behar izan gehiago egoan eta konbentura joanez gero, aho bat gitxiago egoten zan mantenduteko. Halandaze, gure etxean ez da inoz ezer falta izan, etxe oneko semea naz... Ostera gure etxetik hiru joan gara eleiz ikasketak burutzeraz; Joakin “Menesianoa”, beste bat Jesuita eta ni. Lehenengo abade eta gero fraile zistertar.

8) *Ze aldaketa ikusten dozu gure inguruan, lehengo denboratik gaurkoetara.*

Normalean gauzak aldatu dirala esatean, txarrerako aldatu izan dirala esan ohi da. Nik ostera, baikor pentsetan dot. Jendearen arteko diferentziak gero eta txikerragoak dira. Bata bestearenganako gorrotoa gitxituz doa. Apurka-apurka bake-bidera goazela pentsetan dot.

9) *Zer da zoriontsu egiten zaituena?*

Jaungoikoa. Lehen beragaz egoteko eskatzen neutson. Orain, beran parte izan naiten gura dot.

10) *Noiz ikusiko zaitugu barriz be Meñakan?*

Joaten naz noizean behin. Lehen sarritxuago joaten nintzan, baina orain badakizu edadea gora-ta... Eskerrik asko Patxi, ondo izan eta ikusi arte...



UDAN... IKASIZ GOZATU ETA GOZATUZ IKASI!!!**AUZOLANDEGIAK EUSKADI - 2008****ADINGABEKOENTZAT:****1.- Estibalizko monastegia**

Monasterioko liburutegiko funtsak sailkatzen laguntzea da helburua.

Modalitatea: Ondare kulturala berreskuratzea

Esparrua: Estatu-mailakoa

Uztailaren 1etik 14ra eta uztailaren 17tik 30era

Adina: 15 eta 17 urte bitartean.

2.- Elvillargo antzinako galtzada**3.- Dinamik(tt)ak'08****NAZIOARTEKOAK:****1.- Araia****2.- Iruña-Veleia, erromatarren garaiko hiria****3.- Arrolako iruna. Arratzu. Bizkaia.**

Helburua, Arrolako Iruña berreskuratzea da.

Modalitatea: Arkeologia

Esparrua: Nazioartekoa

Hizkuntza: Ingelesa

Uztailaren 2tik 15era eta uztailaren 17tik 30era

Adina: 18 eta 26 urte bitartean.

**18 URTETIK GORA ETA ESTATU MAILAKOA:****1.- Gure aitona-amonekin elkarriketan**

Helburua belaunaldien arteko harremanak eta ezagutza sustatzea da, baita hirugarren adinekoei animazio-jarduerak eskaintzea ere.

Uztailaren 17tik 30era eta abuztuaren 1etik 14ra, Lekeiton.

Adina: 18 eta 26 urte bitartean.

AUZOLANDEGIEI BURUZKO INFORMAZINO GEHIAGO, NON???

www.gazteaukera.euskadi.net

Informaziorako doako telefonoa: 900 33 88 22. Ordutegia: 9:00etatik 18:00etara.

Posta elektronikoz: e-maila bidali gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es helbidera.

GAZTEENTZAKO V. MIKROIPUIN LEHIAKETA**BALDINTZAK:**

-Mikroipuinak gitxienez 125 berba eduki beharko dauz eta gehienez 150.

-Gura beste ipuin aurkeztu daitekez.

-Egileak Gazte-txartela Euro<26a eduki/atera beharko dau.

-Egileak 16 urte beteta euki beharko dauz bidaia egiteko unea heltzen danean.

Ipuina gazteria@ej-gv.es helbidera bialdu behar da, uztailaren 18a baino lehen. Ipuinagaz batera izen-abizenak, NAN zenbakia eta harremanetan jarri ahal izateko telefonoa zenbakia be bialdu.

Eta saria???

15 EGUNEKO INGELES IKASTAROA, DUBLINEN!!!

Baldintzen eta sariaren gaineko informazino zehatzagoa jakiteko:

www.gazteaukera.euskadi.net edo 945 01 95 11 / 94 470 22 94

ORDENAGAILUA BE EUSKERAZ

1.- Kirola: Ibilbideak, materiala eta informazio orokorra



www.bizikletaz.com

Ibilbideak, barriak, lasterketen jarraipena...



http://em.luberri.net

Mendizaleentzako ibilbideak, argazkiak, aholkuak eta argitalpenak.



www.mendikoweb.com

Kirolari eta mendiari lotutako gaiak: eskia, mendiko ibilbideak, materialea, argitalpenak, azken barriak...



www.tropela.net

Txirrindularitzari buruzko barriak, lasterketen jarraipena eta kinielak egiteko aukerea.

2.- Gaztegunea: Danetariko informazioa gazteentzat



www.gazteaukera.com

Gazteentzako informazio ataria.



www.ondopasabizkaian.com

Ikuskizun agenda.



www.unibertsitatea.net

Konpartitzeko pisuak, kotxe-kideak... aurkitzeko, orientazio-zerbitzua, azken barriak eta informazio ugari unibertsitate inguruko atarian.

FRUIZ

“UDABERRI ZAHAR-BARRI”

lelopean izendatu dogun ekimen hau 6 larunbatez dago osotute eta Euskera Batzordetik sortutako proposamen bat da. 4 zapatu prestakuntzak egiteko erabili doguz eta azken bi zapatuak saio bereziak egiteko erabiliko dira: Maiatzak 24 ean Bertsolaritza saio berezia eta Uztailak 17-18ko asteburuen Kontu-kontari eta kantu-kantari saio bereziakaz bukatuko da egitasmo hau.

“Udaberri zahar-barri” ekimen hau :

geure arteko hartu emona sendotzea ezinbestekotzat jotzen dogu hizkuntzaren erabilera bultzatu nahi bada aspaldiko euskal kontu, kantu edo ohiturak geurkotu, inoizkorik indartsuen dagoen bertso mundua ezagutu, geure eritziak plazaratzeko bidea jorratu, geure artean alkartu eta ondo pasatzeko aukera on bat da

Prestakuntzarako erabili doguzan zapatuetan atal bi ezberdindu doguz:

1-BERBAKAZ JOLASTEN Berbakaz jolastuz gure ideiak adierazteari ekin deusagu. Alde batetik bertsolaritza mundura hurbiltzen lagundu dozkuezan saio interesgarriak izan doguz, eta bestetik, gai ezberdinei buruzko hausnarketa egiteko aukerea.

2-MUSIKAZ GOZATZEN Musika tresnakaz olgetan aritu gara, kantu batzuk landu doguz eta bertso-afarirako bertsoak eta nondik norakoa prestatu dira.

Udabarri zahar- barri saioek emondako fruituak: UMEAK

Umek alkartzeko beta eduki dabe eskulanak egin, jolastu eta baita musika lantzeko bere.

AMAREN EGUNA

Amatasunaren inguruan hainbat hausnarketa egin ziran. Artikulu eta olerki ugari irakurri genduzan, non ikuspuntu guztiz ezberdinak inguratzen eben aztergai geneukan amatasun kontzeptua: genero-indarkeria, matxismoa, haurren ikuspuntua, ama faltan botaten dauanaren ikuspuntua eta baita soberan botaten dauanarena bere. Landutako kantak ondoko hauek dira:

Benito Lertxundiren MUNDURAT EMAN NINDUZUN

Mikel Laboaren ZILBOR-HESTEA

Mikel Laboaren SEHASKA KANTA

Aurton aman egunerako giroa alaitzeko CD batean musika prestatzeaz aparte, asmatutako olerki hunkigarri bat krabelin bategaz batera eskaini geuntsien Herriko tabernan bazkaltzeko alkartu ziran ama guztiei.

BIHOTZ BAT, BI TAUPADA

Zure SABELAK emon eustan nire lehen arnasa.

Zure BULAR goxoetatik hartu neban lehen janaria.

Zure AHOTIK ikasi neban ama hizkuntza maitea.

Zure ALTXOAN osatu dodaz bihotzeko eta gorputzeko minak.

Zure ESKU sendoa izan da nire lehen pausoen makila.

Zure BEGIEN bitartez ezagutu neban mundua.

Zure BELARRIAK beti izan dira nire nahigabeen gordeleku.

Emon deustazun guztiagatik AMAREN egun honetan bihotz-bihotzetik eskerrik beroenak.

Jarrai dezala belaunaldiz-belaunaldi gure arteko MAITASUN honek.

BERTSOLARITZA SAIO BEREZIA

Maiatzak 24 zapatuen, Euskera batzordea, Jai batzordea, udaletxea eta Herriko tabernagaz lkarlanean aritu ondoren, Herriko tabernan bertso afari bat egitea otu jakun jaietarako dirua lortzeko helburuz. Udaletxeak kontratatutako Aitzol Barandiaran eta Iker Zubeldia bertsolariak izan ziran protagonistak.

Egitaraua:

19.30h Txontxongiloak: “Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria” eskoletan udaletxeak jarrita.

20.00 h Triki-poteoa: herriko tabernetatik zehar.

21.00 h Bertso-afaria.

KONTU-KONTARI ETA KANTA-KANTARI SAIO BEREZIA

Euskera batzordea, Jai batzordea eta Azpuru taberniegaz alkarlanean aritu ondoren uztaileko prestatutako egitaraua:

Uztailak 17 barikue: Gure antzinako kontu eta kantak galdu ez daitezen eta geurkotutiarren, eskolatan alkartuko gara Frunako zenbait partaidegaz beraien sasoiko jai-giroa, ligetako taktikek, eskola sasoia, hain estimedu deukien jatekoa, kantak, jokuek... konta deuskuezan. Ondoren koru zaharrak, betiko abesti batzuk kantako deuskuz. Ekitaldiari merendola bategaz emongo deusagu amaierera.

Uztailak 18 zapatue: Triki-afaria. Alkartu eta ondo pasatzeaz gain Jai batzorderako dirue lortzearen antolatuko dana. Zehazteke.

UMEEN TXOKOA

- 1.-Egon zara inoiz udalekuren batean?
Non? Zenbat urtegaz?
- 2.-Zelan ibili zinan?
Ze ekintza egin zenduezan?
3. -Udalekuek zertarako balio izaten dabe?




**ANDER GOROSTIAGA
URKIZU, 10 urte (GAMIZ-FIKA)**

- 1.- Bai, Orduñan, bederatzi urtegaz.
- 2.- Oso ondo ibili ginan, oso paraje polite izan zan, sekulako mendiekaz. Hurrengo ekintzak egin genduzan gahien bat: jolastu, paseoak eta kirola egin eta eskalatu be bai.
- 3.- Nire kasuan batez be lagunak egiteko; nik lagun barri asko egin nituen, eta noski euskeraz egiteko be bai.



LEIRE ARTETXE AGIRRE, 12 urte (MEÑAKA)

- 1.- Bai, Sukarrietan, 7 urtegaz.
- 2.- Oso ondo ibili ginan, piraguismoa egin genduan, bela, zaldiz ibili, bizikletaz...
- 3.- Deskantatzeko eta, batez be, ondo pasatzeko.



**IRATI ENZUNZA MALLONA,
(FRUIZ)**

- 1.- Bai, Sukarrietan 10 urtegaz, Briñasen 11gaz eta Zarautzen 12 eta 13gaz.
- 2.- Briñas eta Sukarrietan ondo eta Zarautzen askoz hobeto. Piraguismoa, tirolina, bizikletaz ibili, beldurrezko gaua, hondartza, txangoak mendira, jolasak, bela, bertsoarritza...
- 3.- Lagun pilo bat egiteko, uda guztian etxean ez egoteko,oso ondo pasatzeko...




ARITZ MORA PEREZ, 10 urte (ARRIETA)

- 1.- Bai, Briñasen egon nintzan, bederatzi urtegaz.
- 2.- Ondo pasatu genduan eta egindako ekintzak tirolina, pizina, txapelketak... izan ziran.
- 3.- Jolasteko, lagunak egiteko eta ondo pasatzeko.

DENPORA-PASAK


Jeroglifikoak

1



Musean

2



Zelan kantatu eban bertsoa?

ZERI ESATEN JAKO... ALBANDORRATZA ????

Galdetu etxean, auzoan, eskolan...
Hona hemen laguntzatxo bat,
nondik tiratu jakin daizun.



ESAERA ZAHARRAK

- San Juanek esku batean sua eta bestean uda.
- “San Antonio, San Antonio” txarria gaixo dagoanean; “San Antomio” ez dau inork esaten odolostea jaten dauanean.
- San Pedroetan artoak belea tapatzen badau, arto ona.
- San Pedro, zeruetako giltzaren jaubea, zeurea txalupea, neurea sarea.

(<http://berria.info/blogak/pellozabala>)

TXISTEAK

Matematikako irakasleak Arantza atera dau arbelara:

-Ia, Arantza, erantzun, praktetako poltsiko batean 30 € daukozuz, eta bestean 50 €...

-Ene! Gaur beste bateren baten prakak jantzi dodaz!!!!

(www.euskaraz.net)



**NON DAGO
ATARATA
ARGAZKI HAU?
ARRIETAN,
FRUIZEN,
GAMIZ-FIKAN
ALA
MEÑAKAN?
BAIETZ
IGARRI !!!**

Aurreko zenbakiko argazkia: San Luis ermita (Arrieta)

**GAZTAI FRESKOA
ZELAN EGIN**


Esnea irisi, da gero esnia imitten da, apurtzu bet esne epeltzuen botaten dako legarra. Gero tapetan da traputzu betegas eta ukitten da aik eta kuajeu artien. Gero legarra artzien dewenien apurtu eitten da, a legarra apurtu. Da gero apurtu, da imitten dakos genien esnian katzarroak edo seuser, bajetu ditzen, sera, kuajadia eiñekoa bera. Da gero, eitten da a sertu eta gastaya eiñ; katzarroa imiñi, gastaya eiñ eta an dau.

Fikako berbakera, Sorkunde Azketa



**ZENBAKI HONETAN PARTE
HARTU DABE:**

**OLATZ AXPE
JUAN LUIS GOIKOETXEA
JON GOIRIZELAIA
ALFREDO GONZALEZ
ZURIÑE GOTI
ASIER LEGARRETA
ANDERE LEGARRETAETXEBARRIA
NEREA MALLONA
ELIXABETE URIARTE**



**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



**BFA
DFB**
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura